

SAN ANDRES PARROKIA: MONUMENTU HISTORIKOA

Eliza XVI. eta XVII. Mendeetan proiektatu eta eraiki zen arren, elizaren eraikuntza-sistemak eta formek Europako leku askotan oraindik indarrean jarraitzen zuten patroï gotikoei erantzuten diete, batez ere iparraldean, eta modu errenazentistei (zutabeak, koroa, leihoak eta idi. Begiak) eta barrokoiei (portada) egindako erreferentziak ditu.

FATXADAK.

Exentua den eliza honek oinarrizko eta eraikuntzako formek bolumenetan, nabeetan, dorrean, hormetan eta kontrahormetan erakusten du indar plastiko handiena, hemengo eliza gehienetan bezala. Baina sarrera nagusia, hegoaldekoa, portada duen benetako fatxadatzat jotzen da ia. Beste bi portada interesgarriak aberasten dituzten oinplano inguratzailerik soilak.

Sarbide bat dauka fatxada nagusiak: Diego eta Eguigurenek egindako portada barroko xumea.

Iparaldeko fatxada 1949ko atariak babesten du eta bertan nabarmentzekoa da portada platereskoa; portada platereskoak erdi. Puntuko arkuak dauka eta moldura xume batek enkoadratzen du. Arkuarteetan bustoek apaindutako medailoi edo tondo errenazentistak daude. Alde bietan bi zutabe balaustadunek multzoa apaindutako euskarri altuen gain mugatzen dute. Taulamenduan egilea eta data ikus daitezke: 1545, Gabriel de Ubilla. Eta gainean portadaren bigarren gorputza dago. Bertan nitxo txiki bat dago oinazpiko txiki batekin baina eskulturarik gabe, maskor edo moldura polit batez errematatua. Beste taulamendu batek zehazten du azkeneko gorputza eta frontoi txiki bati eusten dio. Kurbak eta antekurbak ere badaramatzen apaindura osatzen dute.

Hegoaldean, portada barroko xume batean, San Migel dago. Arku zorrotz itxurako hormatutako ate handi bat ere badago. Gurutzeriako nerbioen hasierak antzeman daitezke bertan. Elizak alde horretan ziurrenik izan zuen portikoa estaltzeko izango zen. Burualdean honako inskripzio hau dago: “Dominus incipit me et dominus perfeciet me”.

Barnealdea.

Barneko bermeak zutabe klasikoen bidez egiten dira: fuste monozilindriko, harroin atiko (bozela, Eskozia, bozela) eta hainbat kapitel dituen hiru bermaketa pare handi. Lehenengo zutabe pareak kapitel dorikoa du, bigarrenak kapitel korintiarra, salbuespeneko gauza probintzia honetan, eta hirugarrenak hainbat giza buru dauzka kapitolean. Zutabe horiek geroagoko eraikinetan ikusten direnak baino meheagoak dira, gotikotik hurbilago baitaude.

Kapitelen gainetik gangak eusten dituen nerbioak abiatzen dira; oso konplikatua dira eta giltzarriak erliebeekin oso apaindurik daude.

Koru altuan, erdiko nabearen oinaldean kokaturik, beheko ganga nabarmentzen da; hiru arku ditu, karpanela erdikoa eta erdi-puntukoak albokoak, eta pilare zilindriko lodietan du oinarria. Koru altuak burdin forjatuzko baranda dauka.

Bigarren zatian, epistolaren aldean, bataio-kapera dago, arku beheratu baten azpian, kaseroiez eta erliebez apaindua. Barrualdean aparailua harearriz landutakoa da koruan, arkuetan, nerbioetan eta zutabeetan, eta bai epistolaren hormaren zati batean ere. Gainerakoa, ezin hobeto luzitua, harlangaitz-horma izango da.

Tenplua hegaletako nabeetako leihateen bidez argizatzen da; leihate bat dago atal bakoitzean. Erdi-puntuko leihoak absidearen eta lehenengo zatiaren alde banatan; erdi-puntuko leihoak, biforoak, eta oso apainduak; bigarren zatian; eta leiho biforoak, baina zorrotzak eta ezaugarri gotikoak dituzten arkiboltekin, hirugarren eta azken zatian. Badirudi XVI. Mendiko jatorriko leiho bakarra epistolaren azken zatikoa dela. Bi leiho gotiko eta geroagoko egitura duen arrosa-leiho bat nabarmentzen dira sarbide honetako fatxadan.

Dorrea.

Dorrea, XVII. mendearen erdialdekoa da eta elizara itsatsita dago ekialdeko eta iparraldeko fatxaden angeluan. Kanpandorre mehe bat da eta gorputz altu bat dauka; Tenpluaren beheko aldetik ateratzen da eta aldapa bat pasa ondoren poligonoaren oinarrira iristen gara. Alboetan baoak eta erlojuak dauzka, txandaka. Kanpaien gorputzak jarraitzen du eta kupula txiki batean amaitzen da, gurutze batez koroatua eta pinakulua altuez apaindua.

Eraikuntza-analisia.

Elizako espazioaren eraikuntza-sistema gotiko eran gangatua da. Tenplua estaltzeko hamar gurutze-ganga daude, izarren itxurakoak, presbiterioko eta ionetako biak kontuan hartu gabe. Erdiko sei pilare zilindrikotan, angeluetako zutabe-erdietan eta kanpoko kontrahometako pilastretan bermatzen dira. Presbiterioko eta koruaren aldeko gangak ere gurutzeriakoak dira eta oinplano laukizuzen baten gainean daude, alde batean alde oktogonal batera egokitzen direla. Tenpluaren kanpoaldera kontrahorma ageluzuzenak ageri dira.

Koru altua bi pilare zilindriko asketan eta alboetako murruetan sostengatzen da, hiru arkuen gainean; erdiko arkua karpanela da eta albokoak erdi-puntukoak.

Horma perimetralek sistemaren bereizgarri den funtzio hirukoitza dute; itxitura, txarrantxadura eta euskarria edo karga.

Fabrika harearrizkoa da gehienbat. Barrualdean aparailua harlanduzkoa da koruan, arkuetan, nerbioetan eta zutabeetan, eta bai epistolaren hormaren zati batean ere. Gainerakoa, ezin hobeto luzitua, harlangaitz-horma izango da.

Bestelako elementuak.

Eibarko San Andres Elizan erretaula nagusia nabarmentzen da, Andrés de Araozen eta beste artista bikain batzuen lan aparta. Andres de Araoz 1567an hasi zen erretaularekin.

Estofatu gabeko obra da; sotobankoa, bankoa, hiru gorputz eta atikoa ditu. Sei kale ditu, erdikoaz gainera. Egia esan, bankua eta lehenengo gorputza baino ez dira Araozenak. Bitarteko aldikoa da, tradizio platereskoa gainditzen ari den eta italiarren eraginpeko apaindura gutxiko modu batera igarotzen ari den garaikoa. Eskulturaren A de Berruguetek

Araozengan duen eragina nabarmentzen da.

Koruaren behealdean Dolorosa bat eta San Pedroren irudi erromanikoa daude, XII.mendekoa seguru aski, kanpoko portadatik lekualdatua.

XV.mendearen amaierakoa dirudien panel bat dago erliebean, eta Kristoren ehorzketa irudikatzen du.

Alboetako nabeetako absideek Arrosarioko Andra Mariri eta Magdalenari eskainitako XVII. Mendeko erretaulak dauzkate. Badaude, baita ere, bi erretaula barroko biki gurutzeriaren besoetan, andra mariei eta purgatorioko arimei eskainiak.

Dagoeneko aipatu dugu koruko burdin forjatuzko baranda.

Gertakariak eta Kontserbazioa.

Gaur egun, begi-bistan, eraikina ongi samar kontserbatuta dago, barnealdean batik bat, akats puntualen bat badugu ere.

OTSAILAREN 1EKO 21/2005 DEKRETUAREN III. ERANSKINA.

BABESTEKO ARAUBIDEA

I.KAPITULUA BABESTEKO ARAUBIDEAREN XEDAPEN OROKORRAK

1.artikulua.- Babesteko araubidearen helburua.

Babes-araubide hau Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 12.artikuluak ezartzen duenarekin bat etorriz idatzi da, Eibarko San Andres Eliza monumentu izendapenarekin sailkatutako kultura-ondasun izendatzeko espedientea lege horretara egokitu behar delako, monumentua adierazpen horretakoa baita.

2. artikulua.-Aplikazio-eremua.

Elizaren deklarazioa uztailaren 3ko 7/1990 Euskal Kultur Ondarearen Legea egokitze akordioko I. Eta II. eranskinean jasota dagoen mugatze eta azalpenaren arabera kalifikaturiko ondasunerako aplikatuko da jarraian zehaztuko dugun babes-erregimena.

3. artikulua.- Bereziki babestu beharreko osagaiak zehaztea.

1.-Bereziki babestu beharreko osagaiak.

a) Elizak arkitekturaren eta arrearen aldetik hain du kalitate nabarmena, eta garrantzi historikoa ere hain agerikoa, ezen eraikina oso-osorik jo behar baita babes berezikotzat, bere

funtsezko baloreak eta artikulu honetako b) eta c) idatz-zatietan aipatu diren oinarrizko osagarriak kontuan hartuta; ez dira hor sartuko babes-araubide honetan babes ertainekotzat jotzen direnak ez eta ezegokitzat jotzen direnak ere.

b) Eraikin horretan interes nabarmena duten alderdi eta ezaugarriak dira babestu beharreko funtsezko baloreak; hain zuzen ere, arkitekturaren eta/edo artearen jakintzaren eta teoriaren kategorien arabera, antolamenduaren aldetik, funtzionaltasunaren aldetik, espazioaren aldetik dituzten kalitateak direla-eta, interes nabarmena dutenak. Babestu beharreko alderdi eta ezaugarri horien artean dira kalitate horiei deskripzioaren eta balorazioaren arabera dagozkien formak, espazioak eta osagai nagusiak.

Eibarko San Andres Elizaren funtsezko baloreak hauek dira, II. eranskinean ondasun horri buruz ematen den deskripzioaren arabera:

-Kanpoaldeko bolumenaren eite inguratzailea eta geometria; oinek eta beste plano batzuek osatzen dute bolumen hori, eta estalkiek ere bai, gaur duten taxuera berarekin.

-Bolumen partzialen, nabeen eta dorrearen forma inguratzailea, baita horien konposizioa, erlazioak eta proportzio absolutuk eta erlatiboak ere, egungo konfigurazioan.

-Osaera erabatekoa, eraikuntza-sistema zuzenari, gangadunari edo beste bati datxekiona, edo eratorria eta ezin bereizizko eran.

-Tenpluaren barneko espazioaren eta eratze-atal tipologikoen, nabeen, absideen eta koruaren arteko egituraketa eta antolakuntza.

-Eliza nabeen eta gainerako aretoen barneko espazioak egungo konfigurazioan, orobat hura mugatzen eta/edo egituratzen duen gainazal eta atal guztiak, hormak, zutabeak, sabaiak, konposizio-elementu, ordena, moldura, apaingarri eta eskulturak, baita gangak eta nerbioak eta apaindura-elementuak ere.

-Fatxaden eta itxitura eta mugaketako planoen konposizioa eta ehundura, baoak eta konposizio eta erremateko elementu nagusiak barne direla, hala nola erlaitzak, gargolak, inpostak, pilastrak, moldurak eta apaingarriak, bereziki portada barrokoak.

-Eskailerak eta horien osagaiak, hala nola korukoak, itxitura eta defentsako osagarriekin eta altzariekin eta eraikinari lotutako beste batzuekin; balaustreak, barandak, ateak eta leihoak.

-Espresuki eraikinaren arabera egin direlako berari loturik dauden elementu higarriak: presbiterioko erretaula nagusia, eta deskribapenean adierazten diren alboetako erretaulak eta gainerakoak.

c) Ikuspuntu teknikitik obra arkitektoniko baten kontzepzioa obran jartzeko eta bete-betean gauzatzeko helburuarekin sistematizatzerakoan bereizten diren eraikuntza-elementuak oinarrizko elementutzat hartzen dira.

San Andres Eliza konfiguratzeko duten atal edo gorputzen oinarrizko elementuak, babes-araubide honetan bildutako deskribapenaren arabera, honako hauek dira:

-Euskarri-egiturako elementu nagusiak, zimenduak, karga-hormak eta beren zati indartuak-angeluak, pilastrak, kontrahormak, deskarga-arkuak eta antzekoak-, baita pilareak eta zutabeak ere, eta horien osagaiak.

-Ganga-sistemaren berme eta estaldurako elementu nagusiak:gangak, kupulak, tronpak, eta horien osagaiak, nerbioak, plementuak eta arkuak; habeak, armadurak, gapirioak, eta sistema dentelduaren eta pilaketakoaren gainerako elementuak, taulamenduak, habetzanak eta bestelako transmisio-elementuak; eskailerak eta arrapalak.

- Espazioen itxitura eta banaketetarako obra-elementu bertikalak, murruiak eta hormak, inpostak eta erlaitzak, eta irekitzeko eta argiztatzekoak, atek eta leihoak, eta horien janbak, ateburuak, leihoburuak, barlasaiak eta karelak.

-Itxitura-elementu arinak eta segurtasunekoak, balaustreak, karelak,burdinsareak, sareak, ateetako eta leihoetako arotzeria, beirateak eta bestelakoak.

-Harrizko eta adreiluzko fabrikak jatorrizko antolaketan, babes-araubide honen deskribapenaren arabera, eta horien aparailu-erak eta oinarrizko atalak, silarriak, dobelak eta moldurak.

d) Babes bereziko osagai horietan, hala a) idatz-zatian aipatutako atal eta gorputz osagaietan nola funtsezko baloreetan, debekatuta dago haien itxura eta ezaugarriak alda litzakeen erabilera edo eraikuntza oro.Oinarrizko elementuetan egin daitezkeen jardun bakarrak konponketak izango dira, munta txikiko lanak direnean, eta gainerako jardueretarako, hots, konponketa handietarako, zaharberritzeko, indartzeko edo finkatzeko obretarako, babes-araubide honen 10, 11. Eta 12 .artikuluetan aurreikusitakoa aintzat hartzen da. Nolanahi ere den, esku-hartzeetarako ezinbestekoa izango da 8.artikuluaren aurreikusitakoaren arabera proiektua.

2.-Erdi mailako babeseko elementuak.

Erdi mailako babeseko elementutzat hartzen dira elizatariko gorputz modernoak eta areto erantsiak.

Espazio eta elementu horiek guztiek egungo ezaugarri fisikoak eta konposizioari dagozkionak mantendu beharko dituzte.Salbuespen gisa, guztiz justifikatutako arrazoiren bat dagoenean, zaharberritzeko esku hartzeak onartuko dira, babes-araubide honetan ezarritakoaren arabera, baina erabat debekatuta dago babes bereziko gainerako elementuetan eragina duen edozein ekintza.

3.-Bat ez datozen elementuak.

Bat ez datorren elementutzat jotzen da absidearen tximinia.

4.-Artikuluak.-Lotzeko indarra duten manuak.

Babes-araubide honetako manuek lotzeko indarra dute,eta babespeko ondasuna babes-araubideko arauen arabera zaindu beharko da.Era berean, araubide honetako manuek lotu egiten dituzte hirigintza-plangintzako tresnak, eta,beraz, tresna horiek ere bete egin beharko dute babes-araubide hau, Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak 28.1

artikuluaren ezartzen duen bezala. Aipatutako lege-arau hori betetzeko, babes-araubidearen helburu den ondasunari aplikatu dakiokeen hirigintza-plangintzak nahitaezkoa izango du onartu aurretik Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak emandako aldeko txostena lortzea.

5.artikulua.-Manu orokorrak.

1.-Babes-araubide honek babesten duen ondasuna, baimen, erabilera, jarduera, defentsa, zehapen, arau-hauste eta bestelakoei dagokienez, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legean ezarri takoaren menpe egongo da.

2.-Babes-araubide honen eraginpean dagoen ondasunaren jabeek Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko 20 eta 35.artikuluak eta Lurzoruaren 6/1998 Legeko 19.artikuluak ezartzen dituzten kontserbazio-, zaintza- eta babes-betebeharrak bete beharko dituzte.

3.-Ondasunaren zatiren bat edo ondasuna osorik eraitsi behar izanez gero, Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 36.artikuluaren ezarritakoaren arabera egingo da, baita azaroaren 10eko 306/1998 Dekretuaren arabera ere. Dekretu hori kalifikatutako eta zerrendatutako kultur ondasunen hondamen-egoeraren deklarazioari buruzkoa da, bai eta ondasun horiek eraisteko erabakiaren aurretik eta ondoren egin beharrekoei buruzkoa ere, eta lehen aipatutako lege-arau hori garatzen du.

II.KAPITULUA ERABILERAK

6.artikulua.-Baimendutako erabilerak.

1.-Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeko 23. Artikuluaren xedatutakoa betetzeko, ondorengo erabilerak baino ez dira baimenduko Eibarko San Andres Elizaren eraikin osoan: haren ezaugarrietara egokitzen direnak, eta, orobat, eraikina modu egokian zainduko dela bermatzen dutenak eta babes-araubide honen 3.artikuluaren 1.idatz-zatian aipatzen diren osagaiei babes berezia emango zaiela bermatzen dutenak. Hori dela eta, erabilera nagusitzat joko dira erlijiozko eta gurtzazko erabilerak eta kultuko lekuetan ohikoak diren gizarte eta kultur erabilerak, berriz, erabilera nagusi bateragarritzat.

2.-Areto osagarrietan edo erdi mailako babeseko elementuetan, aurreko puntuko lehen paragrafoan adierazitakoaren kalterik gabe, erabilera behinenak izango dira, aurrekoez gain, erlijio-jardueraren berezko xedeetara egokitzen direnak, eta bateragarritzat hartuko dira, orientabide gisa, jarduera horiekin zerikusia duten irakaskuntzakoak, laguntzakoak eta administrazio-erabilerak.

3.-Debekatuta egongo dira aurreko paragrafoan sartzen ez diren gainerako erabilera guztiak.

7.artikulua.-Arauei egokitzea, hala nola irisgarritasunari buruzko legeari, eraikuntzari buruzko oinarritzako arauari, instalazioen erregelamenduei, jarraibide tekniko osagarriei eta beste batzuei.

Eraikina edozein erabilera edo beharrian berritara moldatzeko eta ondasunaren gain egin nahi den edozein esku-hartze egiteko, dena delako gaiaren inguruan indarrean dagoen sektore-

araudiaren irizpideak bete beharko dira, betiere babes-araubide honetako III.Kapituluan ezarritako mugen barruan.

III.KAPITULUA **ESKU HARTZEKO ARAUBIDEA**

Lehen sekzioa **Esku-hartzeko erabateko irizpideak**

8.artikula.-Esku hartzeko proiektuak.

1.-Babes –araubide honen xede den ondasunean inolako esku-hartzerik egin aurretik, dagokion esku-hartzeko proiektua egin beharko da. Proiektu horrek ondorengo edukia izan beharko du:

a) Eraikinaren egungo egoeraren analisi-lan bat, baten deskripzioa eta zainketa-egoeraren azterketa eginez;azterlan horrek diagnosiaren, ondorioen eta jarduteko oinarrizko gomendioen txosten bat ere eduki behar du.

Analisi-lan horretan, deskripzioari dagokion atalean, oinen, garaieren eta sekzioen dokumentazio grafikoa sartu beharko da 1/50 gutxieneko eskalan, eta artitektura-zehaztasunena 1/20 eskalan; orobat, dokumentazio fotografiko osoa, plano historikoak, eta abar; gainera,egitura-sistemaren berri jaso beharko da zehaztasun osoz, neurriak eta akotazioak adieraziz; dokumentazio honekin batera azalpen-memoria bat aurkeztuko da, eta, hala balegokio, dagokion bibliografia era bai.

Zainketa-egoeraren analisisia erabateko analisi-lanaren eranskin edo gehigarri moduan aurkeztu daiteke; honako hauek eduki beharko ditu, besteak beste: egitura-sistemari eragiten dioten edo eragin liezaioketen patologien azterlan bat eta osagai horiek zaintzeko aurreikusten diren neurriak.

b) Honako hauek deskribatuko dituzten dokumentu grafikoak: zer esku-hartzen egin behar den, zein material erabiliko den, lanak burutzeko aldiak eta proiektua amaieran nola geratuko den, eta, hori, eskala egokiak erabiliz adierazita, gutxienez aurreko idatz-zatian aipatutakoen antzekoak erabiliz.

c) Honako hauek azalduko dituzten idatzizko agiriak: egin beharreko esku-hartzearen helburuak, zein lan egingo diren eta zein teknika erabiliko diren, materialak zehaztuz eta gainerako osagaien ondoan zer egonkortasun izango duten eta elkarri nola eragingo dioten aztertuz.

d) Eraikinaren bizitza ziurtatzeko eta behar bezala mantentzeko beharrezko teknikak eta baliabideak zehaztea.

e)Esku-hartzearen aurrekontua; lanak babes-araubide honetako manuen arabera behar bezala gauzatzeko behar diren teknika eta bitarreko guztiak kontuan hartuta.

f) Baldin eta esku-hartzearen bidez eraikinaren gorputzen bat edo osagai zehatzen bat ezabatu nahi bada, esku-hartzeak eragindako gunearen analisi estratigrafikoa egin beharko da, hartara, gorputz edo osagai horren egungo egoera jasota gera dadin eta esku-hartzearen

justifikazioa ere jasota gera dadin; analisi-lanak hala eskatzen duen kasuetan eta guneetan ere, manu berori aplikatuko da..

2.-Lanak edo esku-hartzea eraikinaren zein aldetan egingo diren, hari buruzkoa izango da proiektuen dokumentazioa; zerikusia duten erabateko alderdiei dagozkien aipamen grafiko eta idatzizkoak ere egin beharko dira, edota hedadura handiagoko guneei edo are ondasun guztiari dagozkienak ere, hala nola esku-hartzearen kokapen erlatiboaren planoak eta esku-hartzearen beraren izaera dela-eta beharrezko irizten zaizkion beste batzuk.

9.atikulua.- Jarduketak mugatzea

1.-Eraikinean egin daitezkeen esku-hartzeak mugatuta daude, eraikinaren balore historiko-arkitektonikoak babeste aldera. Hori dela-eta, babes bereziko osagaiei, funtsezko baloreei eta oinarritzko osagaiei- eraikinari duten balioa ematen dieten eta babes-araubide honetako 3.artikuluaren 1.puntuan jasota daudenei-eragin diezaieketen esku-hartzeak debekatuta egongo dira.

2.-Eskuarki, ezin izango dira egin segidan aipatzen diren esku-hartzeak; ezta ere ondasunaren balore historiko-arkitektonikoei kalte egin diezaieketenak, eta babes-araubide honetako beste edozein xedapenen kontradoazenak ere ez. Hartara, jarduera hauek debekatuta egongo dira berariaz.

a) Eraikinaren bolumenean aldaketak egitea arrazoi historikorik gabe.

b) Eraikinak hartzen duen eremuan aldaketak eragitea, baldin eta aldaketa horiek deskribatutako jatorrizko eraikinari eraikin gehiago eranstea badakarte, edo eraikinaren oina luzatzea edo zabalagotzea badakarte.

c) Babes bereziko fatxadetan aldaketak egitea, edo beren osagaietan, deskribatutako eraikinaren jatorrizko antolaeran edo fatxadako hutsarteen kopuruan; hutsarte horien jatorrizko eite, neurri eta proportzioak mantendu egin behar dira.

d) Teilatuaren egungo antolaera aldatzea, esate baterako eraikina jasotzeko obrak egitea, maldak aldatzea edo isurkien kopurua edo antolaera aldatzea.

e) Babes-araubide honetako 3.artikuluaren 1.idatz-zatian aipatutako babes bereziko osagaietan aldaketak egitea, haien bolumetriari, solairu-banaketari edo zatiketari edo solairuen arteko harremanari eraginez; arkitektura-, konposizio- eta apainketa-osagai jatorrizkoak, egungo nortasun hori ematen diotenak, bere horretan gorde behar dira.

Bereziki, debekatuta dago elizako espazioa konpartimentatzea edo banatzea.

f) Babes-araubide honetako 3.artikuluaren 1.idatz-zatian aipatutako babes bereziko osagaietan estilo eransketak egitea, nahiz eta dokumentu grafiko, plastiko edo idatzizkoak egon amaitutakoan lanak zer itxura daukan edo eduki behar duen adierazteko.

g) Diseinu ezegokiarekin honako hauek egitea: eraikuntza-lanak, fatxadetan irtenguneak, bolumenean ezer eranstea, instalazio-kutxak ipintzea edo beste edozer gauza, zeinahi dela ere neurria, altzariteria, seinalizazioa edo publizitatea.

3.-3.artikuluko 2.puntuan adierazitako erdi mailako babeseko espazio eta elementuetan, salbuespen gisa eta behar bezala justifikatuta, barne-espazioa egokitzeko lanak baimen daitezke, baita bizigarritasuna eta akaberak hobetzekoak eta are fatxadak aldatzekoak ere, baina betiere debekatuta egongo da jatorrizko proiektuko fabrika, espazio eta elementu nagusiei edo adierazgarriei eta oinarrizko babeseko elementuei kalteak edo galerak ekar diezaikeen edozein obra egitea.

4.- Estalkian konponketak egiterakoan zaindu egin beharko dira lehendik diren osagaiak, hala osagai nagusiak, teilatu-zurajeak eta habeak nola bigarren mailakoak; kaltea konponezinezkoa bada, aldatzea lehenetsiko da, eraikuntzako konponbide eta material bera erabilia; estalkiaren konponketan material berriak eta egiturazko konponbideak erabili ahal izateko, aldatu eta ordeztzea ezegokia dela frogatu beharko da oso arrazoi indartsuekin, eta bermatu egin beharko da kalifikatutako ondasunaren arkitektura-balioak, espediente honetan aipatu direnak, babestu egingo direla.

5.- Ondasun kalifikatuaren inguruan mugatutako eremuan, esku-hartzeak honako baldintza hauekin baino ezingo dira egin:

a) Erabilerako egintzek edo eraikuntzek, eraikinek edo urbanizazioek ezingo dute kalterik ez eta urritzerik eragin ondasunaren balore eta osagaietan, eta, orobat, ezingo dute orain duen ikuspegia zaildu ez eta urritu, batez ere ondoan diren enparantzetatik eta kateetatik duen ikuspegia.

b) Baimenduko diren esku-hartze bakarrak ondasunaren balorea hobetzekoak eta nabarmentzekoak izango dira, bai eta espazio publikoen berrurbanizatzea dakartenak, betiere diseinua kalitatezkoa bada eta alde zuzenetik txostena egiten bada.

c) Aurreko hori izan ezik, ez da baimenduko eraikuntzak egitea edo kanpoaldeko espazioan, inguruko kale, plaza eta/edo espazio libreetan, aldaketak eragitea, dela urbanizazio-lanekin, eraikuntzekin, bolumenetan irtenguneak eginez den zernahi eransketa eginez, are diseinu edo neurri ezegokiez egindako instalazio altzariteria-, seinalizazio-eta publizitate-osagaiekin ere, sestren itxura edo maila aldatuz, edo perimetro-harresiekin eta eskailerekin.

d) Ingurunearen mugaketak eraginpean hartzen duen esparruan, eraikuntzen altuerak eta eraikinen eta horien zatien dimentsionamendua, konposizioa, diseinua, akabera, materialen kalitatea eta koloreak ondasunak edo desagokiak izan daitezten eragotziko da. Horretarako, kendu egin beharko dira gaur egun dauden elementu desagokiak, Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 12.artikuluko 3.puntuan xedatutakoa betez.

Bigarren sekzioa **Esku-hartzeko irizpide bereziak**

10.artikulua.-Esku hartzeko araubide berezia

1.- Babes-araubide honetako 3.artikuluaren 1.idatz-zatian aipatutako babes bereziko osagaietan 317/2002 Dekretuan birgaitze zientifikorako ezarritako obrak baino ez dira baimenduko; dekretu horrek ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko jarduketak babestuak arautzen ditu.

2.- Egokitze-lanak, eraikinari erabilera berria eman behar bazaio, ahalik eta txikiak izan beharko dira, eta zorrozki gorde beharko dira barrualdearen formak, egiturazko antolaeraren eta barrualdeko espazioen babes bereziko ezaugarrietan – 3.artikuluaren 1. idatz-zatian aipatu dira—aldaketa nabarmenik egin gabe; ez dira baimenduko espazioaren zatikatzeak, lehen zeudenak ez bezalakoak, non ez diren babes-araubide honetan berariaz baimendu diren aldi baterako zatikatzeak.

3.- Baimentzen diren obretarako beharrezkoa izango da baldintza hauek betetzea:

a) Babes berezi eta ertaineko osagaietan, beren jatorrizko egoeran iraun behar baitute, horien kanpoaldeko egiturari edo eraikuntzaren amaiera-lanen konposizioari atzeraezinezko aldaketak eragin diezazkiekeen garbiketa-tratamendurik ez da erabiliko. Garbitzen hasi aurretik eta materialen osaera aztertu ondoren, osagaitik ahulenak babestu egingo dira eta zirrikitu eta junturak itxi egingo dira.

b) Hormak egoera txarrean edo hondatuta badaude, hala nola fatxadaren konposizioaren eta apainduraren zati txikietan azala altxatuta edo higatuta dagoenean, horiek nola sendotu aztertuko da, erabil daitezkeen teknika guztiak aintzat hartuta; ahal dela ez da horma desmuntatuko ezta berreraikiko ere.

c) Instalazioak, hala nola kutzak, erregistroak, biderapenak eta hodiak, kableak eta beste zenbait instalazio lagungarri, eraikinak dituen eiteei egokituko zaizkie, eta erraz iristeko moduan jarriko dira, nabarmendu gabe; ezin izango da hormen, zutabeen eta/edo gangaren sisteman sartuta ipini; osagai horiek ezkutatu egingo dira, edo lurperatu, betiere babestu beharreko kultur baloreei ez bazaie kalterik edo urritzerik eragiten.

d) Babestutako ondasunean egin beharreko esku-hartze orotan erabiliko diren teknikak eta materialek ez dute eragotzi behar etorkizunean birgaitzeko beste esku-hartze batzuk egin ahal izatea. Babestutako ondasuna birgaitzeko egin beharreko lanen ardura profesional eta enpresa espezializatuari emango zaie, lan horiek egiteko behar den gaitasun teknikoa badutela erabateko bermekin egiaztatzen dutenei, hain zuzen.

e) Lehendik ziren estaldurak gorde egingo dira, hala behar balitz, hala barrualdean nola kanpoaldean.

11.artikulua.- Baimenduko diren eraikitze esku-hartzeak.

Ondoko esku-hartze hauek baimenduko dira, baldin eta espazioen antolara osoa eta eraikuntzaren tipologia-, forma-. Eta egitura-osagaiak errespetatzen badituzte:

1.-Eraikuntza osoan

a) Arkitektura-espazioak birgaitzea eta aldatuak izan direla irizten zaizkien zatiak lehengoratzeari, jatorrian zeuden egoeraren edo balio historiki-arkitektoniko handienekoaren arabera, honako hauen bitartez.

- Kanpoaldeko eta barrualdeko hormen fatxadak, hutsarteak eta gainazalak, pilareak, kontrahormak, eta gangak birgaitzea, horien guztien konposizio- eta apaingarriak eta eskulturak barruan direla.

- Jatorrizko itxitura-elementuak eta eraikuntzari modu bereiztezinean lotutako altzariak, hala nola fatxadetako, leihoetako eta barneko zein kanpoko ateetako arotzeria, burdinsareak,

barandak eta karelak, erretaulak eta eraikinean integratuz jotzen diren eta balioa ematen dioten antzeko beste batzuk zaharberritzea.

b) Eraikina finkatzea, berreskuratu ezin diren zatiak ordezkatzuz, ondoko egitura-osagai hauen kokalekua edo kota aldatu gabe:

- Zimenduak.
- Kanpoaldeko eta barrualdeko euste-hormak.
- Zutabeak eta pilastrak.
- Habe, eta ateburu eta leihoburuak.
- Arkuak.
- Gangak.
- Estalkia, jatorrizko estaldura-materiala berrezarrita.

c) Instalazio higieniko-sanitarioak eta bizi ahal izateko oinarrizko instalazioak sartzea, betiere nabarmendu gabe gauzatzen badira, aurreko artikulua araberan, eta ez badiete kalterik edo urritzerik txikiena ere eragiten babestu beharreko osagaiei eta historiaren eta kulturaren aldetik ondasun kalifikatuak duen baloreari; orobat, babes-araubide honetan ezarritako gainerakoak ere bete egin beharko dira.

d) Teilatu-erretenak eta euri-hodiak konpondu eta/edo aldatzea, betiere jatorrizkotzat jotzen den itxura edo historiaren eta arkitekturaren aldetik balore handienekotzat jotzen den itxura aldatu gabe egiten bada eta gainerako osagaiei kalterik eragiten ez bazaie.

e) Balio-urritzea eragiten duten gehigarriak kentzea, baita interesik ez duten edo eraikinaren jatorrizko ezaugarri arkitektonikoekin bat ez datozen lan guztiak desegitea ere.

f) Babes-ertaineko espazioen banaketa eta osagaien eraberritzea, babes-araubide honetako 3.artikulua 2.puntuan ezarritakoaren araberan, betiere eraikinaren egiturazko antolakeraren ezaugarriari eragiten ez bazaie.

g) Amaiera emateko beste osagai kalteturen bat konpontzeko lanak, betiere osagai horrek ez baldin badauka egitura- edo euste-eginkizunen bat eta behar diren dokumentuak aurkeztuz eta eskakizun tekniko guztiak betez gauzatzen badira.

h) Barrualdean egin beharreko lanak, hala nola emokatzea, margotzea eta bernizatzea, eta babes ertaineko osagaietan zolak eta arotzeria konpontzea; betiere balorea azalratzearen eta jatorrizko egoera berreskuratzearen ezaugarriek horretarako aukera ematen badute, eta babes-araubide honetan ezarritakoa betez.

i) Elektrizitate-instalazioak, berokuntza, fumisteria, saneamendua eta aparatu sanitarioak konpontzeko barneko obrak, betiere babes-araubide honen zehaztapenak betez.

j) Babesik ez duten eta bateragarri ez diren osagaiak kentzea.

2.- Erdi mailako babeseko elementuetan egiten diren esku-hartzeak zaharberritze kontserbatzailea deritzon motakoak izango dira, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko 214/ 1996 Dekretuan adierazitakoari jarraiki.

12.artikulua.- Ondasun babestua berreraikitze edo berreskuratze esku-hartzeak.

Aurreko artikuluan azarritakoaren pean zeharo, babestutako ondasunak nolabaiteko hondamena pairatuz gero, ondasun hori bere oneratzeko lanak egiteko teknikarik aurreratuenak eta ziurrenak erabiliko dira, ondasunaren kultur baloreen babesik eta ulermenik handiena bermatzen dutenak, hain zuzen; esku-hartze horiek, erabat hartuta, irizpide hauen arabera egin beharko dira, betiere egokitzat jotako teknika aurreratuenak bide diren horien arabera beste irizpide batzuk hatu behar ez badira:

1.- Dokumentu bidez egiaztatutako egitura-zatiak lehengoratzeko lanak egiteko, lehengoratu beharrekoaren ingurunea argi zehaztuko da, eta bestelako material mota bat, harmonikoa hala ere, erabiltzea hobetsiko da, lehen begiratuan zaharretik bereizteko modukoa, batez ere zati zaharrekin bat egiten den puntu horietan.

2.- Zatikatuta edo puskatuta dauden elementuen dekorazioa berrosatzeko, eta zatiren bat galdu duten lanak finkatzeko, hutsune txikiak berreraikiko dira lehen begiratuan erraz berazteko moduko teknikak erabiliz, edo jatorrizko zatiekin maila ezberdinetan lotzen diren gune neutroen bidez, edo jatorrizko euskarria agerian utziz; baina, batez ere, gune figuratiboak ez dira inoiz berri berri leheneratuko, ez eta obraren figurazioari eragiten dioten elementuak sartuko ere.

3.- Debekatuta egongo da, berariaz, zatiak eta osagarri osoak dokumentuzko oinarririk gabe lehengoratzea, kideko izan daitezkeen estiloen <gisara> edo <antzerak> lehengoratzea; pastixe edo ihakin deritzenak, alegia.

4.- Eite borobileko eskultura-osagaiak, altzariteria, beirakiak eta antzekoak- eraikinaren erabateko egikerari dagozkionak- berregitea onargarri izango da, baldin eta, obraren kalitatea eta hauskarritasuna dela-eta, komenigarri bada haiek museo batera edo leku babestuago batera eramatea. Salbuespenezko kasuetan, osagai horien balioa txikia bada, badago horiek aldatzea, betiere ordezkoen kalitatea eta kalifikaturako eraikinean integrazteko gaitasuna frogatuta badago.

5.-Onargarriak izango dira inguruko zolak, harmailak, igobide eta hormak garbitu, bere oneratu eta lehengoratzeko lanak.